

**2015eKO ZERGA-GASTUEN AURREKONTUA  
PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES 2015**

Kostu bidezko ondare transmisioen kasuan Itundutako zergei eragiten dieten gastu fiskalen zenbatekoa Aurrekontuen Proiektuan nahitaez sartu behar denez, dokumentu honetan 2015eko urtaldiari buruzko Zerga-gastuen Aurrekontua aurkeztuko da, urtero bezala.

Arautegiak ezartzen duen betebeharrak, aldi berean, Espainiako Konstituzioan agertzen da, hain zuzen ere bere 134.2. artikuluan eta helburua, azken finean, tributuak ukitzen dituzten zerga hobariak zenbatestea da.

Era berean, Euskadiko Aurrekontuen Araubidea arautzen duen araudiak ezartzen duenez, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aurrekontuek, Foru Aldundiek Euskal Herriko aurrekontu gastuei kontribuzio gisa egindako ekarpenei dagozkien zerga onurak gordailatuko dituzte.

Beste alde batetik, abenduaren 13ko 197/2011 F.D.ren bidez Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoari buruzko Araudia onetsi zen; Araudi horren 44. artikuluko 14. idatz-zatian ezarri da Zerga Politika Zerbitzuari dagokiola BLHko zerga gastuen aurrekontua egitea.

Zerga-gastuen aurrekontuaren helbururik behinena Bizkaiko Foru Aldundiaren kudeaketa propioak diren zergak ukitzen dituzten zerga hobariak zenbatestea da.

ZGA definitzeko esan daiteke urte osoan zehar gertatuko den zerga sarreraren murrizketaren adierazpen zenbakizkoa dela. Murrizketa hori politika ekonomiko eta gizarte politikaren arloetako helburu jakin batzuk lortzeko izaten diren zerga pizgarrien ondorioz gertatzen da.

Zerga politikaren eta ekonomian dagoen esku hartze publikoaren analisirako tresna izateko erabilera du; honela, gizarte eta ekonomia arloko xede desberdinei (hezkuntza, etxebizitza, osasuna, aurrezki eta inbertsioen sustatzea, etab) arreta jartzeak ekarriko lukeen zerga sakrifizioari buruzko informazioa lortuko genuke. Era berean, zerga-gastuak zenbatzeak, aurrekontuaren benetako dimentsioaz ohartzea ahalbideratzen du.

Con el fin de dar cumplimiento a la obligación de incluir en el Proyecto de Presupuestos Generales de Bizkaia el importe de los gastos fiscales que afecten a los tributos concertados, en este documento se procede a la presentación, como todos los años, del Presupuesto de Gastos Fiscales, referido al ejercicio 2015.

Esta obligación normativa viene incluso recogida en la Constitución Española en su artículo 134.2 y su fin último es cuantificar los beneficios fiscales que afectan a los tributos.

Igualmente, la normativa reguladora del Régimen Presupuestario de Euskadi establece que los presupuestos de la Administración de la Comunidad Autónoma consignarán los beneficios fiscales correspondientes a las aportaciones que efectúen las Diputaciones Forales como contribución a los gastos presupuestarios del País Vasco.

Por otro lado, el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Hacienda y Finanzas aprobado por DF 197/2011 de 13 de diciembre, en su artículo 44, apartado 14, establece que corresponde al Servicio de Política Fiscal, la elaboración del Presupuesto de Gastos Fiscales del THB.

El Presupuesto de Gastos Fiscales tiene como principal objetivo cuantificar los beneficios fiscales que afectan a los tributos de gestión propia de la Diputación Foral de Bizkaia.

El PGF puede definirse como la expresión cifrada de la disminución de ingresos tributarios que se producirá a lo largo del año como consecuencia de incentivos fiscales orientados al logro de determinados objetivos de política económica y social.

Tiene la utilidad de servir como instrumento de análisis de la política fiscal y de la intervención pública en la economía, proporcionando información sobre los sacrificios fiscales que supone la atención a diferentes objetivos de carácter social y económico (educación, vivienda, sanidad, promoción del ahorro e inversiones, etc.). Así mismo, la cuantificación de los gastos fiscales permite apreciar la verdadera dimensión del presupuesto.

## 2015eKO ZERGA-GASTUEN AURREKONTUA PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES 2015

Nahiz eta legez ZGAren edukia zehaztu gabe egon aspaldiko urte hauetan zehar gastu hauek egiteko irizpide batzuk definitu direla esan daiteke.

Horrela, bada, azken ekitaldi hauetan erabili den metodologia zergen koordinaziorako organoaren bidez adostutakoa izan da, batez ere zuzeneko zergei dagokienez, hain zuzen ere zerga-gastuaren zenbatespena zeharkako zergetan estatuko ZGAk ezartzen duelako arlo horretan Foru Aldundiek ez dutelako eskumenik arautegiak emateko.

Dokumentu honen edukiak bereziki ondoko alderdi hauetan finkatzen dira:

- Zerga hobariaren kontzeptua mugatzea.
- ZGA uki ditzaketen arauen aldaketen azterketa eta horiek zenbatesteko prozedura, baldin eta eragiketa horiek egiteko informazio nahikoa badago.
- Metodologiaren deskripzioa eta erabili diren estatistikako iturriak.

Zerga-gastu moduan sartzen dira zergadunentzat zerga hobariak eragiten dituzten zergen arloko kontzeptu edo parametro guztiak, hain zuzen ere zerga administrazioaren biltzeko ahalmena murrizten eta mugatzen dutenak. Elementu horiek ondoko bitarteko hauen bidez taxutzen dira: salbuespenak; zerga-oinarrien edo likidagarrien murrizketak; zerga-tasa murriztuak; zerga guztietako kuota osoen, likidoen edo diferentzialen hobari eta kenkariak.

ZGAtik salbuetsita daude berariaz zerga zorraren ordainketari dagokionez konturako ordainketak, geroratzeak edo zatikatzeak ukitzen dituztenak, baita aurreko urteetako izaera negatiboko oinarrien konpentsazioak ere.

Zerga hobari guztiek lotuta daramaten "sarreraren galera" deritzen zenbatesteko metodoa hartzen da eta hori definitzeko esan behar da zerga sarrerak murrizten diren zenbatekoa dela, eta horren balorazioa "kutzako irizpidea" erabiliz egiten da, edo sarreraren galera hori gertatzen den unekoa.

Aunque legalmente no está especificado el contenido del PGF, a lo largo de los años se han ido definiendo una serie de criterios para su elaboración.

Así, la metodología utilizada en los últimos ejercicios ha sido consensuada a través del Órgano de Coordinación Tributaria, sobre todo en lo referente a los tributos directos, ya que la cuantificación del gasto fiscal en los tributos indirectos viene determinada por el PGF del Estado dada la falta de competencia normativa de las Diputaciones Forales en esta materia.

Los contenidos de este documento abarcan básicamente las siguientes cuestiones:

- La delimitación del concepto de beneficio fiscal.
- El examen de los cambios normativos que puedan afectar al PGF y el procedimiento para su cuantificación, cuando se dispone de información suficiente.
- La descripción de la metodología y las fuentes estadísticas utilizadas.

Se incluyen como gasto fiscal el conjunto de conceptos o parámetros impositivos que originan beneficios fiscales para los contribuyentes y que, por tanto, merman la capacidad recaudatoria de la Administración Tributaria. Estos elementos se articulan mediante exenciones, reducciones en las bases imponibles o liquidables, tipos impositivos reducidos, bonificaciones y deducciones de las cuotas íntegras, líquidas o diferenciales de los diversos tributos.

Se excluyen del PGF los conceptos que afectan exclusivamente a los pagos a cuenta, los aplazamientos o fraccionamientos del pago de la deuda tributaria, y las compensaciones de bases de signo negativo de años anteriores.

Se adopta el método de cuantificación de la "pérdida de ingresos" que conlleva todo beneficio fiscal definida como el importe en el cual se reducen los ingresos tributarios y su valoración se efectúa de acuerdo con el "criterio de caja" o momento en que se produce la merma de ingresos.

## 2015eko ZERGA-GASTUEN AURREKONTUA PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES 2015

Argi dagoen bezala ZGAN zerga-gastu bat sartzeko beharrezkoa da hori zenbatesteko aukerak emango dituen zerga iturri edo estatistikako iturriren bat egotea.

Kontuan hartu behar da urtean likidatzen diren zerga zuzen horietan, hala nola, PFEZn, Sozietateen gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan, urtebeteko desfasea dagoela ZGAREN denborazko erreferentziaren eta errentak edo mozkinak ateratzen diren urtaldiaren artean. Horregatik arauen arloko berrikuntzak 2014. ekitaldiari buruzkoak dira, hau da ZGA 2015ean eragina duten zuzeneko zergak ukitzen dituztenak.

Zehatzago esateko, 2015eko Zerga-gastuen Aurrekontua egiterakoan, ondoko hauek aplikatu dira: Aurreko ZGAN tributu nagusietarako zerga-gastutzat hartutako aldagaien tributu bakoitzaren mugaketari eutsi zaio, eta mantendu egin dira hala PFEZren nola Sozietateen gaineko Zergaren arautegi erregulatzailearen emaitzakoak, PFEZri buruzko 3/2013 Foru Arauan eta Sozietateen gaineko ergari buruzko 11/2013 FAn, biak ere abenduaren 5ekoak, jaso direnak.

Horrela 2014. ekitaldirako PFEZn Foru Arau berrian hartu diren neurriek ez dute zerga honen zerga gastuen sailkapena aldarazten, baina eragina dute horien zenbatespenean, berbarako ondoko hauetan:

- Mugatu egiten da irazpenengatik salbuetsita dagoen zenbateko, 180.000 euroraino.
- BGAE eta pentsio planen ekarpenetan aplikatzen den tratamendu berria, maila koantitatiboan jaitziz muga indibidualak eta bateratuak, eta baita tratamendu bereziaren ezabaketa 52 urtetik gorako subjektu pasiboen kasuan eta 65 urtetik gorako zergadunek egindako ekarpenen kengarritasunik eza ere.
- Ohiko etxebizitza eskuratzegatik kenkarian egiten den urteko inbertsioaren muga murriztea.

Por supuesto, la incorporación de un gasto fiscal al PGF está supeditada a la disponibilidad de alguna fuente fiscal o estadística que permita su cuantificación.

Hay que tener en cuenta que en estos tributos directos que se liquidan anualmente, tales como IRPF, Impuesto sobre Sociedades, e Impuesto sobre Patrimonio, existe un desfase de un año entre la referencia temporal del PGF y el ejercicio en que se obtienen las rentas o los beneficios. Por ello las novedades normativas son las referidas al ejercicio 2014 que afectan a los tributos directos que tengan repercusión en el PGF 2015.

En concreto, en la elaboración del Presupuesto de Gastos Fiscales 2015 se ha mantenido la delimitación para cada tributo de las variables que se catalogaron como gastos fiscales en el PGF anterior para los principales tributos, y se han mantenido aquellos que se derivan de la nueva normativa reguladora tanto del IRPF como del Impuesto sobre Sociedades recogidas en la Norma Foral 13/2013 de IRPF y NF 11/2013 del Impuesto sobre Sociedades, ambas del 5 de diciembre.

Así, en IRPF para el ejercicio fiscal 2014, las medidas adoptadas en la nueva Norma Foral no alteran la clasificación de los gastos fiscales en este tributo pero si inciden en la cuantificación de los mismos tales como:

- Se limita el importe exento en las indemnizaciones por despido hasta 180.000 euros
- El nuevo tratamiento en las aportaciones a EPSV y Planes de pensiones rebajando cuantitativamente los límites individuales y conjuntos, así como la supresión del tratamiento especial en el caso de sujetos pasivos mayores de 52 años y la no deducibilidad de las aportaciones realizadas por los contribuyentes mayores de 65 años
- La reducción del límite de inversión anual en la deducción por adquisición de la vivienda habitual

## 2015eko ZERGA-GASTUEN AURREKONTUA PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES 2015

Jarduera ekonomikoaren hasierarekin lotuta zeuden kenkarietarikoren bat desagertzea aurreko ekitaldietan horien aplikazioa gutxienezkoa izateagatik.

Halaber, Foru Arauak zergaren alderdi teknikoagoetan eragina duten beste berrikuntza batzuk jasotzen ditu eta, beraz, ez direnak zerga gastu moduan zenbatesten.

La desaparición de alguna deducción relacionada con el inicio de actividades económicas por su mínima aplicación en ejercicios anteriores

Además, la norma Foral recoge otras novedades que afectan a aspectos más técnicos del impuesto y, que por tanto, no se contabilizan como gastos fiscales

- Horrela, Zerga prezioen gehikuntzak etxeetako ekonomian eragin dituen eraginei egokitzearen ondoretarako eguneratu egin da Zergaren tarifa; halaber, % 1ean igo dira zergapetze bateratuaren murrizketaren zenbatekoak eta 2014. ekitaldirako indarrean zeuden kenkari pertsonalak eta familiarak.
- Zabaldu egin dira tarifaren tarteak 91.370 eurotik gorako oinarri likidagarrietatik aurrera, hain zuzen ere hiru tarte marjinalekin, 121.820 eurotik gorako oinarrietarako % 46 eta % 47 oinarriarekin eta ehuneko 49koarekin 177.650 eurotik gorakoetan.
- Aldatu egin da aurrezkiaren oinarri likidagarria kargatzen duen tarifa ehuneko 20tik 25era arteko oinarriak dituzten bost tarte ezartzeko.
- Zeinu, adierazle eta moduluen arabera jarduera ekonomikoaren etekin garbiaren zenbatespenaren araubidea ezabatu da.
- Inguruabar jakin batzuetan ondare irabazien kargarako tratamendu berria ezarri da, hain zuzen ere eskualdatzen diren baloreen gaineko ehuneko 3ko tasarekin.
- Aldatu egin da kenkari orokorraren kontzeptua, oinarri orokorragatik kuotatik kentzen delako maila kontzeptualean horien atal bihurtuz.
- Kenkari batzuetan aplikagarriak diren zenbateko edo oinarriak aldatzea, adibidez adina, dohaintzak eta bestelakoak.
- Así, con motivo de adecuar el Impuesto al efecto que el alza de los precios ha producido en las economías domésticas, se procede a la actualización de la tarifa del Impuesto, así como a la elevación de las cuantías de la reducción por tributación conjunta y de las deducciones personales y familiares vigentes para el ejercicio 2014 en un 1%.
- Se amplían los tramos de la tarifa a partir de bases liquidables superiores a 91.370 euros en tres con tipos marginales superiores del 46%, del 47% para bases superiores a 121.820 y del 49 por ciento para las superiores a 177.650 euros
- Se modifica la tarifa que grava la base liquidable del ahorro para establecer cinco tramos con tipos desde el 20 al 25 por ciento.
- Se elimina el régimen de estimación del rendimiento neto de las actividades económicas por signos, índices y módulos.
- Se establece un nuevo tratamiento para el gravamen de las ganancias de patrimonio en ciertas circunstancias con un tipo del 3 por ciento sobre los valores de transmisión.
- Se modifica el concepto de la deducción general ya que se resta íntegramente de la cuota por base general formando parte conceptualmente de la misma.
- Modificación de los importes o tipos aplicables en alguna deducción como la de edad, donativos y otras.

## 2015eko ZERGA-GASTUEN AURREKONTUA PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES 2015

Sozietateen gaineko Zergan ezarri diren berrikuntzek duten ia isla bakarra ekitaldiko zerga gastuetan egindako zenbatespenean datza, hala horien definizioak ez duelako horrela eraginik horien sailkapenean nola gaur egun eskura dauden datuekin ezinezkoa delako bere zenbatespena egitea.

Neurri berrizale gehienen emaitza zerga kuota handiagoa da eta horrek esan nahi du ez direla zerga gastu moduan sailkatzen, eta adibidez hori da "gutxieneko zergapetzearekin" gertatzen dena. Beste batzuek izaera teknikoa dute, adibidez Merkataritzako Funtzaren kengarritasunaren mugaketari elkartuta dauden hobari jakin batzuen mugaketa; eta beste batzuetan, berbarako inbertsio edo araubide bereziengatik kenkari batzuen ezabaketa, horiek zerga gastu moduan zenbatesteak ez du eraginik jasotzen aurreko urteetan sortutakoak eta aplikatu gabekoak izateagatik indarrean mantentzen diren enpresek duten saldo positiboengatik.

Zerga hobari berri moduan inkorporatu den bakarra ekitaldiko zerga likidagarriaren bidez kotu gabeko ehuneko 20ko "forfait" bat ezartzea izan da mikroenpresen kasuan (VO 2 milioi eurotik beherakoa).

Metodologiaren alorrean, aurten egonkortasunaz hitz egin daiteke, 2015eko ZGAK funtsean azkeneko urteetan erabili diren irizpide, ikuspegi, informazio iturri eta kalkulatzeko prozedura berberekin segituko duelako, estimazioen oinarrian dauden datuen ohiko eguneratzea, zerga ezberdinak arautzen dituen indarreko araudira egokitu beharra, hipotesiak berrikustea eta ekonomiaren oraingo inguruabarretara egokitzea kenduta, jakina.

Hori guztia hartu da kontuan zerga-gastuak osatzen dituzten aldagaien bilakaera zein izango den simulazio, estimazio edo proiektzio prozesuen bidez zehazteko.

Gai horretan EAEko gainerako Zerga Administrazioekin koordinatuta segitzen da, aurreko urteetan zehaztutako metodologia irizpide berberak aplikatuko badira.

En el caso del Impuesto sobre Sociedades las novedades introducidas apenas se han materializado en la cuantificación realizada de los gastos fiscales del ejercicio, bien porque su definición no incide en su clasificación como tal o bien porque con los datos actuales disponibles no es posible realizar su estimación.

La mayoría de las medidas novedosas tienen como resultado una mayor cuota tributaria lo que implica su no clasificación como gasto fiscal, como sucede en el caso de la denominada "Tributación Mínima", otras tienen carácter técnico como la limitación de ciertos beneficios asociados a la limitación de la deducibilidad del Fondo de Comercio, y en otras como la eliminación de diversas deducciones por inversiones o regímenes especiales, su cuantificación como gasto fiscal no se ve afectada debido al saldo positivo que las empresas mantienen vigentes por ser generadas y no aplicadas en años anteriores.

Sólo hemos incorporado como nuevo beneficio fiscal el establecimiento de un "forfait" de gastos sin justificar del 20 por ciento de la base liquidable positiva del ejercicio, en el caso de las microempresas (VO inferior a 2 millones de euros)

En el terreno metodológico este año cabe hablar de estabilidad, ya que el PGF del 2015 mantiene básicamente los mismos criterios, enfoques, fuentes de información y procedimientos de cálculo que se han utilizado durante los últimos años, a excepción, por supuesto, de la habitual actualización de los datos en que se basan las estimaciones, la necesaria adaptación a la vigente normativa reguladora de los diversos tributos, la revisión de las hipótesis y la adaptación a las circunstancias actuales de la economía.

Todo ello se ha tenido en cuenta para la determinación de la evolución previsible de las diferentes variables que configuran los gastos fiscales mediante procesos de simulación, estimación o proyección.

Se mantiene la coordinación, en esta materia, con el resto de las Administraciones Tributarias de la CAPV con el fin de aplicar los mismos criterios metodológicos ya definidos.

## 2015eko ZERGA-GASTUEN AURREKONTUA PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES 2015

Dena dela, ZGA honetan berrikuntza metodologiko bat gertatzen da, hain zuzen ere izaera pertsonaleko bi zergen aitortzaileen generoaren arabera zerga gastuaren kopuruak lortzea; bi zerga horiek PFEZ eta Ondarearen gaineko Zerga dira.

Maila metodologikoetan bi zergetan zerga gastua gizon eta emakumeen arabera egotzi da, aztertu den neurri bakoitzean ukituak diren zergadunen generoari kasu eginda, zerga hobari guztietan ez egoteagatik gertatzen den kuota likidoaren gehikuntzak sexuen arabera banatzea kontuan hartuta.

ZGA egiterakoan ahaleginik behinenak tributu bakoitzean eragin kuantitatibo eta kualitatiborik handiena duten zerga-gastuetan egiten dira.

Alde horretatik, nabarmendu behar da ebaluatutako zerga-gastu guztien ehuneko 33,27 PFEZri dagozkiola, eta proportzio hori ehuneko 35eraino igotzen dela Sozietateen gaineko zerga eransten badiogu (bi kasuetan aurreko urteetan baino bost puntu gutxiago ehunekoetan).

Azken finean zerga gastuen arloan 2015. urterako zenbatetsi den munta osoa 2.799,20 milioi eurokoa da eta jaitsiera 72 milioi eurokoa da aurreko ekitaldiko zenbatespenekin alderatuta; beraz, aldaketa negatiboa % 2,53koa da eta zuzeneko zergei buruzko zenbatespen guztien beherakadaren emaitza da. Ordea, igo diren bakarrak BEZaren eta zeharkako gainerako zergen arloko zenbatespenak, OE eta EJDZren salbuespen bakarrarekin, baino ez dira izan.

Horren ondorioz zerga gastu osoak sarrera teorikoen osotasunean duen partaidetza ia 2 puntu jaitsi da azken ekitaldiekin alderatuta, % 29,37ra arte, alegia.

Dokumentu honen amaieran erantsi den koadroan zerga-gastuen zergen arabera zerbatekoen banaketa ematen da eta, horien barruan, 2015 urterako dituzten osagai nagusien arabera. Halaber, bi koadro erantsi dira PFEZ eta OZko subjektu pasiboaren generoaren arabera zerga gastuen egozketarekin.

Sin embargo, en este PGF se presenta una novedad metodológica cual es la obtención de las cifras del gasto fiscal según el género de los declarantes en los dos tributos de carácter personal cuales son el IRPF y el Impuesto sobre el Patrimonio.

Metodológicamente en ambos tributos se ha imputado el gasto fiscal por hombres y mujeres atendiendo al género de los contribuyentes afectados por cada medida analizada teniendo en cuenta la distribución por sexo de los aumentos de cuota líquida que se producen por la no existencia de cada uno de los beneficios fiscales.

Como en años anteriores, en la confección del PGF los mayores esfuerzos se dirigen hacia aquellos gastos fiscales que tienen una mayor relevancia cuantitativa y cualitativa en cada tributo.

En este sentido hay que resaltar que el 29 por ciento del total de gastos fiscales evaluados corresponden al IRPF, proporción que se incrementa hasta el 35 por ciento si añadimos el Impuesto sobre Sociedades, (en ambos casos cinco puntos porcentuales menos que en años anteriores)

En definitiva, el importe estimado de los gastos fiscales para 2015 asciende a un total de 2.799,20 millones de euros produciéndose un descenso de 72 millones de euros, respecto a las estimaciones del ejercicio anterior lo que supone una variación negativa del 2,53% por ciento derivada de la rebaja en todas las estimaciones relativas a los impuestos directos Por contra solo se elevan las estimaciones relativas a IVA y demás impuestos indirectos con la única excepción de ITP y AJD.

Como consecuencia de ello, La participación del total gastos fiscales sobre el total de los ingresos teóricos se ha rebajado en casi 2 puntos respecto a los últimos ejercicios, hasta el 29,37%

En el cuadro final que acompaña a este documento recoge la distribución de las estimaciones de los gastos fiscales por tributos y, dentro de éstos, según sus principales componentes para el año 2015. Además se han agregado dos cuadros con la imputación de los gastos fiscales según el género de los sujetos pasivos en IRPF e IP.

**2015eko ZERGA-GASTUEN AURREKONTUA**  
**PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES 2015****I. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga**

Zerga-gastutzat jotzen diren PFEZko kontzeptuen multzoan hainbat salbuespen, errenta hobari, zerga-oinarriaren murrizketa eta kuotaren zenbait kenkari sartzen dira.

Zerga-gastu moduan mantentzen dira ondoko kontzeptuzko elementu hauek. Horietan homogeneizatuta ematen dira zenbatespenari buruzko alderdi metodologikoak:

- Zerga-oinarriaren murrizketak, adibidez lanagatikoa hobaria, BGAE eta PPetara egiten diren ekarpenak eta zerga aitortzen bateratuagatikoa murrizketa.
- Foru Araia 9. artikuluko salbuespenak eta horien artean dago aurrezkiaren oinarriaren barruan dibidenduen kontzeptuan jasotzen diren lehenengo 1.500 euroak.
- Ohiko etxebizitzaren kasuan ondare irabaziak berriz inbertitzeagatikoa salbuespena,
- Kuotako kenkariak: Ohiko etxebizitza, Dohaintza, sindikatuentzako kuota eta jarduera ekonomikoei buruzkoak.

Adierazi den honen guztiari buruzko xehakapenak ondoko ataletan ematen dira.

**1. Zerga-gastua zerga-oinarrian****1.1. Kenkariak zerga-oinarrian**

Kalkuluaren metodologia aurreko urteetako bera da, eta funtsean mikrosimulazioko sistema aplikatzen da PFEZ zergadunen kolektiboaren banan-banako informazioa dakarten datu basearen gainean, eta zerga-gastuen inpaktua zehazten da kuota erreala eta teorikoak alderatuz.

**I. Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas**

El conjunto de conceptos del IRPF que se considera que constituyen gastos fiscales está integrado por determinadas exenciones, bonificaciones de rentas, reducciones de base imponible, y algunas deducciones en la cuota.

Además, se mantienen como gasto fiscal los siguientes elementos conceptuales, en los cuales ya están homogeneizados los aspectos metodológicos de su estimación:

- Reducciones de la base imponible tales como la bonificación de trabajo, las aportaciones a EPSV y PP, y la reducción por tributación conjunta.
- Exenciones del artículo 9 de la Norma Foral entre ellas la relativa a la no tributación de los primeros 1.500 euros percibidos en concepto de dividendos dentro de la base del ahorro.
- Exención por reinversión de las ganancias patrimoniales en el caso de la vivienda habitual.
- Deducciones de la Cuota: las relativas a la vivienda habitual, los donativos, cuotas a sindicatos y aquellas relacionadas con las actividades económicas.

El detalle de todo lo expuesto se recoge en los apartados siguientes.

**1. Gasto Fiscal en Base Imponible****1.1. Reducciones en la base imponible**

La metodología de cálculo no varía respecto a años anteriores, consistiendo básicamente en la aplicación de un sistema de micro simulación sobre la base de datos que contienen información individualizada sobre el colectivo de contribuyentes de IRPF determinando el impacto de los gastos fiscales por comparación entre las cuotas reales y teóricas.

**2015eKO ZERGA-GASTUEN AURREKONTUA  
PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES 2015**

Zerga datuak 2014ko zerga urtaldira arte proiektatzen dira dauden datuen eta 2015erako prestatzen ari den aurrekontuaren artean dagoen denborazko desfasea zuzenduko duten adierazle demografiko eta ekonomikoak erabiliz.

Lehenengo etapa batean zergadunen multzoaren, zergaren osagaien, zerga-oinarrien murrizketen eta kuotaren jaitsieren proiektzioak egiten dira.

Ondoren, mikrosimulazioa egiten da, batera, dagozkion pizgarriekin eta pizgarririk gabe, eta zerga-gastu bakoitza kalkulatzeko da bi egoeretan, hots, zerga-pizgarriarekin eta pizgarririk gabe, lortutako kuota likidoen diferentziaren bidez.

Horrela balioesten dira oinarrian lan hobaria, BGAEei egindako ekarpenak eta zerga-ordainketa bateratua dituzten zerga-gastuak. Gainera, zerga-oinarria gutxitzen duten efektuek zenbateko desberdina agertzen dutenez banan-banan aztertuz edota kuotaren baterako efektua aztertuz, beste simulazio bat egiten da; bertan, zerga-oinarriko zerga-gastuen kuota osoaren baterako efektua jasotzen da. Baterako efektu hori banakako efektuen batuketara baino handiagoa da, beraz, bien arteko diferentzia proportzionaltasunez egozten zaio banakako efektu bakoitzari.

Baterako zerga ordainketaren ondoriozko murrizketari dagokionez, portzentaje bat aplikatuko da baterako zerga ordainketaren ondorioz zerga-oinarria murrizten ez dela simulatzean ateratako zerga-gastuaren emaitzari.

Adierazi den portzentaje horren helburua gertatzen den eragina arintzea da, hau da, zerga-ordainketa bateratuak egitearen duen tributazio indibidualarekin erkatuta gertatzen den errenten metatzeagatik.

Aplikaturiko portzentajea lortzeko, PFEZn aurkezturiko baterako zerga-ordainketaren aitorpenak aztertu eta likidazioaren eta banakoaren zerga-ordainketaren arteko simulazioa egiten da.

Los datos fiscales se proyectan hasta el ejercicio fiscal 2014 mediante el uso de indicadores demográficos y económicos que corrijan el desfase temporal entre los datos disponibles y el presupuesto que se está elaborando, 2015.

En una primera etapa se llevan a cabo las proyecciones de la población de contribuyentes, los componentes de renta, las reducciones en la base imponible y las deducciones en cuota.

A continuación se efectúa la micro simulación de manera conjunta con y sin los incentivos correspondientes, y se calcula cada uno de los gastos fiscales mediante la diferencia de las cuotas líquidas obtenidas en las dos situaciones, con el incentivo fiscal y sin él.

De esta forma se estiman los gastos fiscales relativos a la bonificación de trabajo, las aportaciones a EPSV y la reducción por tributación conjunta. Además, dado que los efectos que minoran la base imponible presentan una cuantía distinta si se analizan por separado o si se estudia el efecto conjunto en cuota, se realiza otra simulación en donde se recoge el efecto conjunto en cuota íntegra de los gastos fiscales en base imponible. Este efecto conjunto es superior a la suma de los efectos aislados, por lo que la diferencia se imputa proporcionalmente mediante agregación a cada uno de los efectos aislados.

En cuanto a la reducción por tributación conjunta, se aplica un porcentaje reductor sobre el resultado del gasto fiscal obtenido al simular la no existencia de la reducción en base imponible por tributación conjunta.

Este porcentaje tiene como finalidad paliar el efecto que se produce como consecuencia de la acumulación de rentas que conlleva la tributación conjunta, en comparación con la tributación individual.

El porcentaje aplicado se obtiene del estudio de las declaraciones de tributación conjunta presentadas en IRPF y la simulación de su liquidación con tributación individual.

**2015eko ZERGA-GASTUEN AURREKONTUA**  
**PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES 2015****1.2. 6/2006 Foru Arauaren 9. artikuluko  
Salbuespenak**

Idatz-zati honetan, erabili beharreko datuen ataletako bat 190 eredutik lortuko lirateke; besteak beste kargatutako errentatzat jotzen ez diren jasotzeak biltzen dituzten erakundeek aurkezten dituztenak, hau da, aipatu den foru arauaren artikuluko horretan ezarri dena betez.

Hala ere ezin zaionez hartzaile bakoitzari salbuetsitako errentak egotzi bazterreko tipoa jakin ahal izateko eta hartukizun horien ehuneko kopuru handi bat aitorpena derrigorrez egin behar izateko errenta osoaren gutxienezkoa gaituzten ez dute subjektu pasiboena izanik (eta honek ez duenez zerga-gasturik sortzen), ez da hartukizun horien zerga-gastuaren estimaziorik egiten.

Badago salbuespen kasu bat, zenbatespena egiteko aukera ematen duena. Ekitaldian jaso diren dibidenduetatik hasierako 1.500 euroen salbuespena da. Kasu honetan horren kalkulua PFEZren aitorpenetako zerga-datuen edukitik abiatuta egiten da, tarteen araberrako aurrezkiaren bidezko oinarriari karga-tasak aplikatuz, gau da, hau da, PFEZ 2014rako arautegiak ezarri dituen tarte eta tasekin bat.

**1.3. Ohiko bizilekuan berrinbertitzeagatik  
salbuespena**

Ohiko bizilekua eskualdatzetik lortutako ondare-irabazien salbuespena, eskualdatutako zenbatekoa osorik edo zati bat ohiko bizileku berri bat eskuratzeko berrinbertitzen denean, zerga-gastu bat dugu.

Aurreko urteetako aitorpenetan kontsignatutako zenbatekoetan oinarrituta, 2014ko PFEZen zenbatuko den kopuruaren proiektio bat egin da eta horren kostua aurrezki-oinarriaren zergapetzean ezarri diren tarte berrietarako egon dauden emaitzak batez besteko karga-tasaren aplikazioaren bidez zehaztuko da.

**1.2. Exenciones del artículo 9 de la Norma  
Foral 6/2006**

Dentro de este apartado, parte de los datos a utilizar se obtendrían del modelo 190 presentado por las entidades en donde se recogen, entre otras, aquellas percepciones que no se consideran renta gravada, en virtud de lo establecido en dicho artículo de la Norma Foral.

Sin embargo, dado que no se puede imputar a cada preceptor individual las rentas exentas para conocer su tipo marginal y dado que un porcentaje elevado de dichas percepciones corresponde a sujetos pasivos cuyas rentas totales no superan los mínimos de la obligación de declarar, (supuesto que no constituye gasto fiscal), no se realiza una estimación del coste fiscal de dichas percepciones.

Existe un supuesto de exención en que sí es posible realizar su cuantificación. Es el caso de la exención de los primeros 1.500 euros para los dividendos percibidos en el ejercicio. En este caso, se realiza su cálculo a partir de los datos fiscales contenidos en las declaraciones de IRPF, aplicando los tipos de gravamen correspondiente a la base de ahorro según tramos y tipos nuevos, tal como recoge la normativa para IRPF 2014.

**1.3. Exención por reinversión en vivienda  
habitual**

La exención de las ganancias patrimoniales obtenidas en la transmisión de la vivienda habitual, cuando parte o el total del importe de enajenación se reinvierta en la adquisición de una nueva vivienda habitual constituye un supuesto de gasto fiscal.

Sobre la base de los importes consignados en declaraciones de varios años anteriores se ha realizado una proyección del importe que se computará en IRPF 2014 y su coste vendrá determinado por la aplicación de un tipo medio de gravamen derivado de los existentes para los nuevos tramos establecidos para la tributación de la base del ahorro.

## 2015eko ZERGA-GASTUEN AURREKONTUA PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES 2015

### 1.4. Zerga-gastua zerga-oinarrian zenbatestea

Aurreko horren guztiaren ondorioz gastu guztien zenbatespena dator eta ikusten da 2014. ekitaldirako egin diren zenbatespenen ezaugarri erkidea dela jaitsiera. Jaitsiera hori bi inguruabarrengatik da:

- Foru Arau berriaren ondorioz gertatu diren arautegien arloko aldaketak; aldaketa horien xedea zerga bilketa handiagoa lortzea da.
- Zergadunen kopuru gero eta txikiagoa; inguruabar hori PFEZren azken bi kanpainetan igarri da. Kanpaina horiek % 5 inguruko galerarekin burutu dira, 28.000 zergadun inguru. Inguruabar hori endemikoa da krisi ekonomikoetan eta zergen igoeretan.

Zehatzago esanda, zerga gastua 2014. ekitaldiko PFEZren zerga-oinarrian 2015. urteko ekitaldirako, oinarriaren salbuespenak eta kenkariak ere barruan hartzen dituenak, 613,9 milioi eurokoa da. Horrek esan nahi du 110 milioi euroko murrizketa dagoela aurreko urteko ZGArekin alderatuta, eta jaitsiera ehuneko 15,21ekoa dela.

Oinarri likidagarrian zerga gastuaren osagaien banakapena hau da:

- Salbuespena ohiko etxebizitzan berrinbertitzeagatik: 5 milioi euro.
- Salbuespena jaso diren dibidenduen hasierako 1.500 euroengatik: 17 milioi.
- Laneko etekin garbiengatik hobaria: 399,4 milioi euro.
- BGAE eta Pentsio Planetan egindako diru-ekarpenak: 100 milioi.
- Zergapetze bateratuagatik murrizketa, hau da: 92 milioi.

Hasieran behintzat PFEZ 2014.ari dagokionez diseinatu den egoeraren arabera artean jaisten jarraituko du aurkezleen kopuruak eta

### 1.4. Cuantificación del Gasto Fiscal en Base Imponible

De todo lo anterior se deriva la cuantificación de los diversos gastos y se aprecia que para el ejercicio 2014 las estimaciones realizadas tienen en común un descenso generalizado de las mismas debido a dos circunstancias:

- Los cambios normativos acontecidos en la nueva Norma Foral que inciden en una bajada de los beneficios fiscales en aras a conseguir una mayor recaudación tributaria
- Un menor número de contribuyentes que se viene observando en las dos últimas campañas de IRPF que se ha materializado en una pérdida cercana al 5%, unos 28.000 contribuyentes, circunstancia endémica a las crisis económicas y a las subidas de impuestos

En concreto, el gasto fiscal en la base imponible del IRPF del ejercicio 2014 para el Presupuesto 2015, que incluye las estimaciones de exenciones y reducciones de la base, se cifra en 613,9 millones de euros, lo que conlleva una disminución de 110 millones de euros con respecto al PGF del año anterior, y un decremento del 15,21 por ciento.

El desglose de los componentes del gasto fiscal en base liquidable es el siguiente:

- Exención por reinversión Vivienda Habitual: 5 millones de euros.
- Exención por primeros 1.500 euros de dividendos percibidos: 17 millones.
- Bonificación sobre los rendimientos netos de trabajo: 399,4 millones de euros.
- Aportaciones a EPSV y Planes de Pensiones: 100 millones.
- Reducción por de Tributación Conjunta: 92 millones.

En principio, se ha diseñado un escenario para IRPF 2014 en que continuara descendiendo el número de presentadores lo que conllevará una

## 2015eko ZERGA-GASTUEN AURREKONTUA PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES 2015

horrek 2013. ekitaldiarekin alderatuta errenten murrizketa ekarriko du, bereziki lan pertsonalagatiko sarreraren kasuan. Halaber, aurreikuspen negatiboak egin dira hauek bezalako zenbatespenetan:

- a) Ondare irabazietan eragina dutenak; horietarako zenbatetsi da behera egiteko euren azken ekitaldietako joera horretan mantenduko direla.
- b) Beste alde batetik, oraindik gehiago mugatu dira gizarte prebisioko sistemetara egindako ekarpenengatiko zerga-oinarri orokorraren murrizketaren aukerak PFEZ 2012 eta 2013 ekitaldietako aitorpenetan aldagarri horri buruzko datuak ikusita, eta kontuan hartu behar da zergari buruzko Foru Arauan ezarri den erregulazio berria, hain zuzen ere ekarpen indibidualetarako muga berriak ezarri dituen (5.000 euro) eta adin gehiagoko zergadunentzako tratamenduen desagerpena.
- c) Halaber, aitorpenen kopuruaren murrizketak eragina du dibidenduen salbuespenen zenbatespenean eta zergapetze bateratuaren murrizketan.

### 2. Kuotaren kenkariak

Kuotako kenkariak buruzko zerga-gastuak (ohiko etxebizitza, jarduera ekonomikoaren sustapena eta dohaintzei buruzkoak) 2012ko eta 2013ko ekitaldiko aitorpenetan eskuratu diren zenbatekoen 2014 urteko proiektzioa eginda kalkulatu ditugu, hau da, aurrekontuan sartu den urtean aurkeztu beharrekoak. Ondore horretarako hauek hartu dira kontuan:

- Arauen arloko aldarazpenak.
- Zerga-gastua osatzen duen kenkari bakoitzak aurreko urteetan izandako bilakaera.
- Kuota nahikorik ez izateagatik aplikatu gabeko kenkarien eragina.

2014 PFEZrako kuotaren gaineko aurreikuspenetan izandako emaitzei dagokienez, azpimarratu behar da:

disminución de las rentas, en particular los ingresos de trabajo personal, con respecto a 2013. Además, se han realizado previsiones negativas en estimaciones como :

- a) Aquellas que afectan a las ganancias patrimoniales para las cuales se ha estimado que seguirán en su trayectoria descendente de los últimos ejercicios fiscales.
- b) Por otro lado, se limitan aún más las posibilidades de reducción de la base imponible general por aportaciones a sistemas de previsión social una vez observados los datos relativos a esta variable en las declaraciones de IRPF 2012 y 2013, y teniendo en cuenta la nueva regulación establecida en la Norma Foral del impuesto con el establecimiento de nuevos límites en las aportaciones individuales (5.000 euros) y la desaparición de los tratamientos para contribuyentes de más edad.
- c) Igualmente la disminución del número de declaraciones afecta a la estimación de la exención de los dividendos y a la reducción por tributación conjunta.

### 2. Deducciones de la cuota

Los gastos fiscales referentes a deducciones en cuota (relativos a la vivienda habitual, el fomento de la actividad económica, y los donativos) los estimamos mediante una proyección de los importes obtenidos en las declaraciones del ejercicio 2012 y 2013 al ejercicio 2014 a presentar en el año presupuestado, teniendo en cuenta:

- Las modificaciones normativas.
- La evolución experimentada por cada deducción que constituye gasto fiscal en años anteriores.
- El efecto de las deducciones no practicadas por insuficiencia de cuota.

Respecto a los resultados obtenidos en las previsiones sobre las deducciones en cuota para IRPF 2014, destacar que:

## 2015eko ZERGA-GASTUEN AURREKONTUA PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES 2015

- Ohiko etxebizitza eskuratzeko gehi etxebizitza kontuaren kenkariaren kasuan, murriztu egiten dira 2014. ekitaldirako egin diren zenbatespenak urteroko inbertsioaren muga 10.000 eurotik 8.500 eurora murriztu delako.
- Zerga gastua eratzen duten kuotako gainerako kenkariaren kasuan aurreko ekitaldietakoen oso antzeko joera mantendu da.

Adierazi den hau guztia kontuan hartuta PFEZn kuota osoaren kenkariengatik zerga gastu osoa zenbatesteko ezarri da 192,6 milioikoa dela; horren barruan ohiko etxebizitzaren eskuraketa eta alokairuagatik kenkari dagokien munta adierazi den zenbateko horren ehuneko 92 da, eta ehuneko 8 gainerako kenkariak, bestea beste dohaintzak eta bestelakoak

PFEZ 2014ri dagozkion 2015eko ZGARako zenbatetsitako zerga-gastuen zenbatekoak agregatuta, guztira, 806,5eko zifra dugu, hots, 149 milioi euroko jaitsiera absolutua eta -%15,6ko jaitsiera erlatiboa aurreko ZGAko aurrekontuko kantitatearekiko.

Aipatu den zenbateko oso horren munta zerga-oinarriaren kontzeptu guztien eta kuotako kenkari buruzkoen arteko banaketa hurrenez hurren % 76 eta % 24an banatzen dira eta txosten honen amaieran ematen den koadroan daude jasota.

Osotasunean, zerga-sarrera teorikoen %24,5 dira. Honi deritzo zerga-sarrera teorikoa: zerga-gasturik gabe izango litzatekeen zerga-bilketa. Bestalde, %28,81eko jaitsiera dago Aurrekontuaren guztizko zenbatekoarekiko.

